

KABINETEAREN KOORDINAZIORAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Maitane Leizaola Zulueta

Bilbon jaio zen, 1976ko urriaren 15ean.

Prestakuntza akademikoa

Zuzenbide Juridiko Ekonomikoan lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean.

Ibilbide profesionala

Bere lan-ibilbidea abokatu lanetan hasi zen. Zuzenbide Zibilaren eta Kontratu Zuzenbidearen arloan letratu espezialista gisa lan egin zuen 4 urtez; horren ondoren, banku sektorean hasi zen, hain zuzen ere, ETEen merkataritza arloan eta partikularren finantza aholkularitzan. Lanpostu horretan ari zela, foru esparruan politikako ardurak hartzeko eszedentzia eskatu zuen.

2007tik 2011ra, Kultura Saileko Gazteriaren zuzendari nagusia izan zen.

2011tik 2011ra, Kultura Saileko Kirolen eta Gazteriaren zuzendari nagusia izan zen.

Gaur egun, Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiaren burua da. Erakunde horrek arlo hauen ardura du: Foru Gobernuaren arlo ezberdinetatik garatzen diren plan eta ekintzen jarraipena eta barruko eta kanpoko kontrola; erakundeak herritarrekin dituen harremanak eta herritarrek erakundearen jardunean duten parte-hartzea; Bizkaiko gobernurako eta lurralderako interesgarriak izan daitezkeen gaien azterketa eta Gobernuaren arlo guztiek ezarri behar dituzten politikak koordinatu eta zuzentzea, bereziki gazteriaren arlokoak.

Euskaraz (4. HE) eta ingelesez (FCE) hitz egin eta idazten du.